

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Erreportajeen ereduak aztertuz haien komunikazio-asmoa inferitu eta egituraren osagaiak bereizi. Horrez gain, ezagutza hori norbere testuaren planifikazioan erabili.	1.1 Bereizten ditu informazioa emateko helburua duten testuak eta informazioa emateaz gain irakurteen ekimzetan eragiteko helburua dutenak. 1.2 Erreportajeak eta haien egiturako elementuak identifikatzen ditu. 1.3 Erreportajearen komunikazio-asmoa, izenburua, sarrera eta azpi-ataletako informazioak emanik, azpi-izenburu egokiak idazten ditu.
2. Informazioa eskuratzea helburu duen aurrez planifikatutako elkarrizketan, aurrez aurreko egoeraren ezaugarrien arabera galdera egokiak egin eta interakziorako estrategiak aplikatu.	2.1 Elkarrizketatua, elkarrizketaren helburua, gaia eta elkarrizketarako galdera-gidoia emanik galdera egokiak hautatzen ditu: helburuarekiko egokiak, ez iraingarriak, ez errepikakorak. 2.2 Elkarrizketatuarekin diskurtso partekatua eraikitzeko hizkuntza-baliabideak, elkarrizketaren hasiera, amaiera etab. baliatzen ditu. 2.3 Elkarrizketarako prestatutako galdera-gidoia eta gauzatutako elkarrizketa alderatuz, elkarrizketan egindako galderak identifikatzen ditu.
3. Testu bateko ideien arteko erlazio semantikoa inferitu eta erlazio horiek adierazteko hizkuntza-baliabideak zein progresio tematikoa bideratzen dutenak nor bere erabiliz.	3.1 Benarrezko informazioak eskatutako testu-sekuentziaren arabera antolatzen ditu: deskribapen-sekuentziaren edo tasekako sekuentziaren baitan. 3.2 Informazioak edo ideiak, gehiegizko errepikapenik gabe, progresio tematikoa bermatzeko hizkuntza-baliabideak egoki erabiltzen ditu. 3.3 Informazioak edo ideiak lotzeko, horien arteko erlazio semantikoaren arabera, testu-antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.
4. Besteen hitzak norbere diskurtsoan txertatzeko landutako hizkuntza- baliabideak aplikatu.	4.1- Zehar estiloa erabiltzerakoan beharrezko aldaketak egiten ditu: pertsona izenordainen aldaketak, perpaus kompletiboak osatzeko, denbora adberbioak, leku-adberbioak, etab. 4.2- Estilo zuzena eta zehar estiloa baliatzerakoan puntuazio-ikurrak zuzen erabiltzen ditu.
5. Emandako enuntziatuetan izen-sintagmak eta haien osagaiak identifikatu eta osagaiak deklinatuz esaldi zuzenak idatzi.	5.1- Eskatutako kategoria gramatikalkak eskatutako deklinabide-kasuetan dituzten izen-sintagmak idazten ditu. 5.2- Izen-sintagmak zuzen deklinatzen ditu. 5.3- Zuzen jokatzeko aditzak, haren komuntzadurak eragiten duten izen-sintagmen arabera.
6. Oinarrizko termino soziolinguistikoak ezagutu.	6.1- Oinarrizko termino soziolinguistikoak ezagutzen ditu. 6.2- Oinarrizko termino soziolinguistikoak testuetan txertatzen ditu.
7. Euskararen bilakaera historikoan eragina izan duten eragile, elkarte eta norbanakoen lana ezagutu.	7.1- Ezagutzen du euskararen bilakaera historikoan eragina izan duten eragile, elkarte eta norbanakoen lana.
8. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	8.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira. 8.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.
9. Interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.	9.1. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du. 9.2. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz. 9.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz. 9.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kausa-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.
10. Informazio soila adierazten duten enuntziatuak balorazio enuntziatu bilakatu zentzu positiboa zein negatiboa adierazten duten adjektibo baloratiboak modu kontzientean erabiliz.	10.1. Balorazioa adierazten duten esaldiak idazten/esaten ditu. 10.2. Idazten/esaten dituen esaldiak zentzuzkoak dira, koherentzia semantikoa dago adjektiboaren eta gainerako esaldiaren artean. 10.3. Adjektiboak esaldiak eskatutako deklinabide kasuetan zuzen idazten/esaten ditu.
11. Ohar kritikoren atalak ikasi ondoren, landutako ikus-entzunezko baten inguruko ohar kritikoa idatzi.	11.1. Ohar kritiko baten atalak bereizten ditu. 11.2. Esaldiak osatzen ditu ideiak behar den bezala lotuz; kausa-ondorio harremanak, aurkaritza harremanak... zuzen adieraziz. 11.3. Ortografia eta deklinabidea berrikusten ditu entregatu aurretik eta zuzenketak bideratzen ditu.
12. Ikus-entzunezko baten inguruko ohar kritikoa egin ahal izateko baliabideak aplikatu.	12.1. Kontrol-zerrenda baliatuz ohar kritikoren egituraren atalak eta haien ordena egokia bermatzen ditu. 12.2. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko datu bibliografikoen atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu. 12.3. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren edukiaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu. 12.4. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren balorazioaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.
13. Ohar kritikoa berrikusteko kontrol-zerrenda talde lanean sortu eta norbere ohar kritikoren zein emanikoen berrikusketan aplikatu.	13.1. Kontrol-zerrenda sortzean modu aktiboan parte hartzen du. 13.2. Kontrol-zerrendan adostutako urratsak norbere ohar kritikoa berrikustean aplikatzen ditu.